

Ostirala, 2009/11/27

Kronika.net
Argazkiak
Elkarrizketak
Jasota Bezala
Inkesta eta Eztabaida
Zerbitzu eta Helbideak
Agenda
Kronika Bereziak
Dokumentuak
Publizitatea
Egin Bazkide
AURREKO EDIZIOAK Aukeratu nahi duzun data
2009
azaroa
26
▷ BILATU
<input type="text" value="Kronika Zaharrak"/>
ARGITARATZAILEA
LAGUNTZAILEAK

KRONIKA.NET

ASTIGARRAGA

Sagardoari buruzko jardunaldiak Sagardoetxeak antolatuta

Gaur azken eguna da. Hitzaldiak goiz eta arratsalde izango dira Sagardoetxean bertan, eta Udaletxeko Pleno Aretoan.
2009/11/27 - Ostirala

Astigarragako Sagardoetxeak Sagardo Forum, Sagardoa eta Turismoari buruzko jardunaldiak antolatu ditu, sagardogintzaren kultura eta herriko ondarea gizarteratzeko asmoarekin. Jardunaldiak atzo hasi ziren eta gaur izango da azken eguna. Hiru gai nagusi landuko dituzte jardunaldi hauetan: produktua bera, turismoa eta sagardoaren kultura. Gai horiek hobeto azaltzeko, Europa mailan sektore honetan ospea duten adituek hitzaldiak emango dituzte. Hitzaldiak goiz eta arratsalde izango dira. Goizean, 10:00etatik 13:15etara, hiru hitzaldi emango dituzte Sagardoetxean. Sagardotegien eragin sozioekonomikoa izango da lehenengoa eta IKEI-ko Carmen Usoz izango da hizlaria. Etenaldiaren ondoren, Sagardoa Europar gaia azalduko du Iñaki Soroa AICV-ko presidentea. Laborategi automatikoa: Zebakizko espektrofotometria ekipoaren aurkezpena eta erakustaldia ere izango da Optomesure-ren eskutik. Arratsaldean, berriz, hitzaldi bakarra izango da, 18:30etatik 20:00etara: Sagardotegiak XXgarren Mendearen hasieran. Josu Tellabide, Lourdes Odriozola, Miel Jose Astarbide eta Andori Arzallus izango dira hizlariak. Azken hori Udaletxeko Pleno Aretoan izango da.

Zabaldu!

[Atzera egin](#) | [Inprimatu](#) | [Norbaiti bidali](#)

BILATZAILEA
Idatzi bilaketa hitza(k)

▷ **BILATU**

ARGAZKIAK



▷ **IKUSI**

Momentu honetan inkestari ez dago

▷ **Eztabaida Lekua**



Dobera bloga
Zure bloga gurekin



GAURKO KRONIKA

45. BEHOBIA-DONOSTIA HERRI LASTERKETA

